Donostiak etorkizunari begiratzen dio Enbaxadore sarearekin batera: talentua, ezagutza eta lankidetza

Donostiako alkate Jon Insaustik urriaren 30ean egin zuen lehen topaketa Enbaxadore sareko kideekin. Donostia Turismoa Convention Bureauk eta Kursaal Zentroak sustatutako ekimena da sarea. Jardunaldiak hiriko indarguneez eta erronkez, zientziak eta ezagutzak hiriaren garapenean duten eginkizunaz eta kongresuek talentua erakartzeko, aliantza berriak sortzeko eta nazioarteko proiekzioa indartzeko eskaintzen dituzten aukerez hitz egiteko gunea zabaldu zuen.

Donostia nazioartean ezaguna da bere edertasunagatik, gastronomiagatik eta kulturagatik. Hala ere, irudi horren atzean badago beste hiri bat, hura bezain garrantzitsua, unibertsitateen, ikerketa-zentroen, enpresen, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren ekosistema baten gainean eraikia. Errealitate hori izan zen Jon Insausti Donostiako alkatearen eta Enbaxadore sareko kideen arteko lehen topaketaren ardatza, urriaren 30ean.

Jardunaldian hiriko hainbat arlo estrategikotako profesionalak bildu ziren, baita Olatz Yarza Mugikortasuneko, Garraio Jasangarriko eta Turismoko zinegotzi ordezkaria, Isabel Aguirrezabala Donostia Turismoako zuzendari gerentea eta Iker Goikoetxea Kursaal Zentroko zuzendari gerentea ere.

Topaketari esker, Donostiaren orainari eta etorkizunari buruzko ikuspegiak partekatu, indarguneak eta ahulguneak identifikatu eta ezagutza, talentua eta sare profesionalak hiriaren garapena bultzatzen jarraitzeko nola baliatu hausnartu ahal izan zen.

Hiri txikia, hiri handi baten ezaugarriekin

Bere hitzaldian, Jon Insausti Donostiako alkateak hiriaren berezitasuna nabarmendu zuen: tamaina txikia izan arren, nazioarteko irismena duen jarduera zientifiko, kultural eta ekonomikoa du.

«Hiri txikia gara, baina hiri handi baten ezaugarriak ditugu», adierazi zuen alkateak. Horren adibidetzat jarri zuen Donostiak aste gutxiren buruan Zinemaldian nazioarteko zinema-izarrak, Passion for Knowledge ekimenean sei Nobel saridun eta San Sebastian Gastronomikan munduko sukaldari ezagunenetako batzuk biltzeko duen gaitasuna.

Donostiaren beste «parekorik gabeko esparrua»

Insaustiren iritzi, hiriak badu bigarren aurpegi bat, erakargarri turistikoak baino ezezagunagoa baina haiek bezain apartekoa: unibertsitateek, enpresek, zientzia- eta teknologia-zentroek eta erreferentziazko profesionalek osatzen dutena. Beste «parekorik gabeko esparru» bat da, eta ikusgarritasun handiagoa merezi du.

Ikuspegi hori oso presente egon zen topaketa osoan. Bertan agerian geratu zen Donostia ezagutzaren hiri gisa identifikatzea ikerketa zientifiko eta teknologikotik harago doala, eta kultura zein giza eskubideak bezalako esparruak ere hartzen dituela.

Partekatutako hausnarketek azpimarratu zuten, halaber, hirian lidergo ugari daudela, sektore desberdinetatik proiektuak bultzatzeko gai direnak, eta aniztasun hori lankidetza, lotura eta helburu partekatu bihurtzearen garrantzia.

Azaldutako beste gaietako bat izan zen hiri-mugetatik harago begiratzeko beharra, itsasoa aktibo estrategiko gisa aitortuz eta Pasaiako badia nahiz Gipuzkoarekin eta Euskadirekin dagoen lotura Donostiaren garapenari buruzko ikuspegi zabalago batean txertatuz.

Ikuspegi horretatik, hiria garrantzi handiko industria-, zientzia- eta teknologia-sarea duen metropoli-ingurune baten parte gisa ulertzearen balioa nabarmendu zen, lankidetzarako eta nazioarteko proiekziorako aukera berriak sortzeko gai baita.

Benetakotasuna: «Ez ditugu ekitaldiak erosten, geureak sortzen ditugu»

Alkateak benetakotasuna aldarrikatu zuen Donostiaren indargune nagusietako bat bezala, hirian egiten diren topaketa handi asko bertako jardueratik eta espezializazio-esparruetatik sortzen direla nabarmenduz.

«Ez ditugu ekitaldiak erosten, geureak sortzen ditugu», esan zuen. Horrela, bere gaitasunetan, nortasunean eta ezagutzan oinarrituta nazioarteko posizionamendua eraikitzen duen hiri-ereduaren alde egin zuen.

Ideia horrek jardunaldiko hausnarketa nagusietako batekin bat egin zuen: Donostiaren benetako ahalmena bertako profesionalek, erakundeek eta ezagutzaren eragileek dagoeneko egiten duten jarduerari lotutako ekimenak eta topaketak bultzatzean datza, hiri-eredu benetako eta bereizi bat indartuz.



Ezagutzatik sortzen diren eta aukera berriak eragiten dituzten kongresuak

Topaketako gai nagusietako bat kongresu zientifikoek eta profesionalek ideiak trukatzeko, ezagutza sortzeko eta aukera berriak zabaltzeko gune gisa duten eginkizuna izan zen.

Elkarrizketan nabarmendu zen kongresu-jardueraren balioa, bereziki, hirian garatzen diren ikerketarekin, berrikuntzarekin eta espezializazio-arloekin duen loturan datzala.

Alde horretatik, Donostiako zentroen, erakundeen eta profesionalen lanetik sortutako kongresu propioak sustatzen jarraitzearen garrantzia partekatu zen, ahalegin guztiak hiriko errealitatearekin zerikusirik ez duten topaketak erakartzera bideratu beharrean.

Kongresuak Donostia ezagutzaren hiri gisa eraikitzeko prozesuaren isla gisa ere aurkeztu ziren. Bilakaera horri esker, nazioartean gero eta konektatuago dagoen ekosistema zientifiko eta profesionala sendotu da.

Halaber, tokiko ikerketari ikusgarritasuna emateko, lankidetzak ezartzeko eta profil profesional berriak erakartzeko duten gaitasuna azpimarratu zen.

Bereziki garrantzitsua izan zen topaketa horiek belaunaldi berriei eskaintzen dizkieten aukerei buruzko hausnarketa: erreferentziazko profesionalekin harremanetan jartzea, ikerketa-ildo berriak ezagutzea eta nazioarteko irismeneko proiektu zientifiko eta profesionalak Donostiatik gara daitezkeela ikustea ahalbidetzen baitiete.

Testuinguru horretan, parte-hartzaileak oinarrizko ideia batean bat etorri ziren: erreferentziazko kongresuak erakartzeko, erreferente izan behar da. Espezializazio-arlo bakoitzeko bikaintasunak pizten du nazioarteko interesa, beste aditu batzuk erakartzen ditu eta benetako balio zientifiko eta profesionala duten topaketak sortzea ahalbidetzen du.

Donostia Turismoako Convention Bureau-ren laguntza, kongresuak bultzatzeko giltzarri

Elkarrizketak Donostian kongresuak bultzatzen dituzten profesionalek jasotzen duten laguntza balioan jartzeko aukera ere eman zuen.



Bereziki nabarmendu zen Donostia Turismoako Convention Bureau-ren eta Kursaal Zentroaren eginkizuna eragile bideratzaile gisa: erreferentziazko topaketa zientifiko eta profesionalak gauzatzeko laguntza, aholkularitza eta baliabideak eskaintzeko gai dira.

Partekatutako hausnarketek hirian azken bi hamarkadetan izandako bilakaera eta kongresuak antolatzeko laguntza-egituren sendotzea aitortu zituzten.

Laguntza hori funtsezko elementutzat jo zen, tokiko ekosistematik sortutako ekimenak nazioarteko topaketa bihur daitezen, haiek sustatzen dituzten profesionalen lana erraztuz eta Donostiak ezagutzari lotutako kongresu-helmuga gisa duen posizionamendua indartzen lagunduz.

Erreferente izan, talentua erakarri eta bertan mantendu

Talentua erakartzea eta bertan mantentzea elkarrizketako beste gai nagusietako bat izan zen.
Parte-hartzaileak bat etorri ziren Donostia nazioarteko profesionalak eta ikertzaileak erakartzeko gai den hiri gisa sendotzen jarraitzeko beharrean, baina baita bertan bizi, ikasi eta lan egiten dutenei aukerak eskaintzekoan ere.

Testuinguru horretan, Isabel Aguirrezabala Donostia Turismoako zuzendari gerenteak Enbaxadore sarearen balioa nabarmendu zuen: hiririako estrategikoak diren hainbat arlotako profesionalen komunitate bat da, eta haien ezagutzak, esperientziak eta harremanek Donostiaren posizionamendua indartzen laguntzen dute.

Jardunaldiko hausnarketa nagusiak jasoz, partekatutako hiru lehentasun handi nabarmendu zituen: hiria bere espezializazio-esparruetan erreferente gisa sendotzea; tokiko zein nazioarteko talentua erakartzea eta bertan mantentzea; eta talentu horrek Donostian bere proiektuak garatzeko behar duen laguntza eskaintzea.

Elkarrizketan profesionalak erakartzea eta bertan mantentzea zailtzen duten zenbait erronka ere landu ziren: etxebizitzaren prezio altua, soldata-baldintzak eta hirira iristen direnek ostatua eta integrazioa lortzeko dituzten zailtasunak, besteak beste.

Alde horretatik, harrera errazteko, bizitegi-irtenbide berriak aztertzeko eta bizi-baldintza egokiak eskaintzeko beharra azpimarratu zen, nazioarteko zein tokiko talentuak Donostian epe luzerako proiektu pertsonalak eta profesionalak garatzeko ingurune egokia aurki dezan.



Hiri barruan ere enbaxadore izatea: zientzia donostiarrei hurbiltzea

Jardunaldian sortutako hausnarketetako bat izan zen ahalegin guztiak Donostiaren kanpo-proiekziora ez bideratzearen garrantzia.

Nazioarteko talentua erakartzearekin eta erreferentziazko topaketak antolatzearekin batera, tokiko talentua balioan jartzeko eta hiriaren barruan ere enbaxadore izateko beharra planteatu zen.

Ildo horretan, donostiarrek beren inguruan garatzen den jarduera zientifiko, teknologiko, kultural eta profesionala hobeto ezagutu behar dutela partekatu zen, eta jarduera horren parte eta harro sentitu.

Parte-hartzaileek zientzia, ikerketa eta kongresuak gizartera hurbiltzea komeni dela adierazi zuten, dibulgazioa eta jarduera horiek komunikabideetan zein tokiko informazio-kanaletan duten presentzia indartuz.

Herritarrekiko lotura hori Donostiak ezagutzaren hiri gisa duen nortasuna indartzeko, belaunaldi berrietan bokazioak pizteko eta bertako profesionalek garapen kolektiboari egiten dioten ekarpena ikusgarriago bihurtzeko aukeratzat jo zen.

Kongresuen ondarea: herritarrengana iristen den ezagutza

Jardunaldiko beste ardatzetako bat kongresuek ospatu ondoren ere sor dezaketen eragina izan zen.

Parte-hartzaileek azpimarratu zuten haien balioa ez dela neurtu behar soilik bertaratutakoen kopuruaren edo sortzen duten jarduera ekonomikoaren arabera; hirian uzten dituzten lankidetza-aukerek, aurrerapen zientifikoek eta harreman profesionalek ere badute garrantzia.

Alde horretatik, ondare positibo eta iraunkorra sortzeko gai diren kongresuak bultzatzearen garrantzia nabarmendu zen, esparru hertsiki profesionala gainditu eta tokiko sareari nahiz herritarrei ere mesede egin diezaieten.

Horretarako, topaketen dibulgazioa indartzea, haien edukiak gizartera hurbiltzea eta Donostiako kongresu-jarduerari nazioartean ikusgarritasun handiagoa ematea proposatu zen.



Ekitaldi horiek posible egiten dituzten pertsonen eta taldeen eginkizuna ere balioan jarri zen. Testuinguru horretan, Iker Goikoetxea Kursaal Zentroko zuzendari gerenteak kongresu-azpiegituren atzean dagoen giza osagaiaren garrantzia gogorarazi zuen, baita bertan lan egiten dutenen esperientzia eta profesionaltasuna ere.

Horrela, kongresuak ez ziren bilera-gune huts gisa aldarrikatu, baizik eta ezagutza trukatzeko, talentua erakartzeko, berrikuntza sustatzeko eta hiria eraldatzeko tresna gisa.

Tokikotik lankidetzan aritzea, nazioartean proiektatzeko

Topaketa amaitzean, Jon Insaustik Jorge Oteizaren hausnarketa bat berreskuratu zuen: norberarena sakonduz unibertsaltasunera iristearen garrantzia.

Ideia horrek jardunaldiko ondorio asko laburbiltzen ditu: Donostiaren etorkizunak bere indarguneak aitortzea, nortasuna indartzea eta hirian dagoeneko badiren talentua eta ezagutza baliatzea eskatzen du.

Alkateak bereziki nabarmendu zuen Enbaxadore sareak loturak eta aliantzak sortzeko gune gisa duen balioa. Kideek beren esparruetako esperientzia eta aitortza ez ezik, Donostiarentzat aukera berriak zabaltzeko balio duten sare profesionalak eta nazioarteko harremanak ere eskaintzen dituzte.

Ildo horretan, tokiko ekosistema hobeto ezagutzearen, bertako eragileen arteko harremanak indartzearen eta «gure artean lankidetzan aritzearen, gero nazioartean lehiatu ahal izateko» garrantzia azpimarratu zuen.

Alkatearen eta Enbaxadore sarearen arteko lehen topaketak Donostiaren aukera eta erronkei buruzko ikuspegi partekatua eraikitzeko balio izan zuen: ezagutzatik, berrikuntzatik eta lankidetzatik hazten jarraitu nahi duen hiria, bere benetakotasunari eutsiz eta herritarrak bere garapenaren partaide eginez.

Hausnarketa horrek Donostia Turismoa Convention Bureauk eta Kursaal Zentroak sustatutako Enbaxadore programaren zentzua indartzen du: Donostia nazioartean proiektatzen laguntzen duten profesionalak konektatzea, eta kongresuen ahalmena baliatzea hiriarentzat aukera berriak eta ondare positiboa sortzeko.



gurera TURISMOA ULERTZEKO MODU BERRI BAT, DONOSTIAN

Parte-hartzaileen zerrenda

Izen-abizenak	Erakundea / antolakundea
Angel Borja	AZTI
Arkady Zhukov	Escuela de Ingeniería de Gipuzkoa (EHU)
Aitziber López Cortajarena	CIC biomaGUNE
Arantza Lekuona	Hospital Universitario de Donostia
José Ignacio Asensio Gallego	Hospital Universitario de Donostia
Irune Ruiz	Hospital Universitario de Donostia
Ricardo Díez Muiño	Donostia International Physics Center
Kepa Korta Murua	Oficina de Estrategia del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Aran García-Lekue	Donostia International Physics Center
Rikardo Bueno	Basque Research & Technology Alliance
Jokin Telleria Julian	Contemporary Concept, SL / DANTZ
J. Aritz Urcola	Hospital Universitario Araba
José Luis de la Cuesta Arzamendi	Instituto Vasco de Criminología (EHU)
Andreas Seifert	CIC nanoGUNE
Fernando Pérez Rodríguez	Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Francisco Javier Eizaguirre Arocena	Hospital Universitario de Donostia
Mikel Larreategi Arana	CodeSyntax